



**"NIK GERNIKAN 2024" SARIETARAKO DEIALDIA, HIRIKO MERKATARITZA- ETA OSTALARITZA-SEKTOREETAKO ENPRESAK AINTZAT HARTZEARREN, BALDIN ETA BERRITZEN, MODERNIZATZEN ETA FINKATZEN LAGUNTZEN BADUTE, TOKIKO EKONOMIAREN ETA UDALERRIAREN IRUDIAREN FUNTSEZKO ELEMENTUETAKO BAT DIREN ALDETIK.**

### **"NIK GERNIKAN 2024" SARIEN OINARRIAK**

#### **LEHENENGOA.- Xedea:**

Oinarri hauen helburua da "Gernika-Lumoko Udalaren NIK GERNIKAN Sarien II. Edizioaren" deialdia egitea, norgehiagoka-erregimenean, hiriko merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetako enpresak, berrikuntza, modernizazio eta finkapenean laguntzen dutenak, tokiko ekonomiaren eta udalerrriaren irudiaren funtsezko elementutzat aitortzeko.

#### **BIGARRENA.- Parte-hartzaileak:**

1.- Sari hauetan parte hartu ahal izango dute beren jarduera Gernika-Lumon garatzen duten eta baldintza hauek betetzen dituzten merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduek, pertsona fisiko zein juridikoek:

##### **1.1. Saltokiak:**

- Egoitza soziala eta fiskala Gernika-Lumon izatea.
- Enpresa oso txiki, txiki edo ertaina izan behar dute, enpresa oso txiki, txiki edo ertainaren definizioari buruzko 2003/361/CE Gomendioak ezartzen duenaren arabera, alegia.
- Baldintza hauetako I. eranskinean batzen den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) zerrendako jarduera ekonomikoren bat burutzea.

1.2- Euskadiko Merkataritza Jardueraren gaineko Legearen 11. artikulua (EHAA zk.: 111, 1994ko ekainaren 13koa) xedatzen du zeinek betetzen dituen merkataritza establezimendua izateko baldintzak. Alegia, merkataritza establezimendu dira merkataritza jarduera betetzen duen eraikin edo lokala.

##### **1.3.- ostalaritzako establezimenduak:**

- Egoitza soziala eta fiskala Gernika-Lumon izatea.
- Enpresa oso txiki, txiki edo ertaina izan behar dute, enpresa oso txiki, txiki edo ertainaren definizioari buruzko 2003/361/CE Gomendioak ezartzen duenaren arabera, alegia.
- Baldintza hauetako II. eranskinean batzen den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) zerrendako jarduera ekonomikoren bat burutzea.

1.4.- Ostalaritza-establezimendutzat hartuko dira 1, 2, 3 eta 4 taldeetan jasotakoak, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituenak, 2. artikuluan ezarritakoari jarraituz (EHAA, 111. zk., 1994ko ekainaren 13koa). Ostalaritza-establezimendutzat hartuko dira ostalaritza jarduerarekin loturiko eraikinak eta hauei atxikitako gelak/espazioak.

2.- Sari hauetan parte hartuko duten merkataritza establezimenduek jarduera burutzeko baimen eta lizentzia oro beharko dute izan. Zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egon behar dute, eta baita udal zergeri dagokienean ere. Halaber, ezingo dute Diru-Laguntza Orokorren 38/2003, azaroaren 17ko Legearen 13.2 artikulua batzen dituen ezein balizkotan erori.



3.- Sari honen aurreko edizioetako irabazleek ezin izango dute sarituak izan ziren kategoria berean lehiatu.

#### **HIRUGARRENA.- Izen-ematea:**

1.- Jardueraren titularrek aurkeztu ahal dute hautagaitza Gernika-Lumoko GERTU Herritarrenganako Arreta Zerbitzuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39-2015 Legearen 16. artikulua aurreikusten dituen bideak erabilita. Hala ere, 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan adierazitako kasuetan, eskabidea nahitaz aurkeztu beharko da egoitza elektronikoa honen bidez: [www.gernika-lumo.eus](http://www.gernika-lumo.eus) > *Tramiteak*.

2.- Hautagai-zerrenden inskripzioarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea ezarritako ereduaren arabera. Gernika-Lumoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulegoan eskuratu ahal izango da (Gertu), eta, formatu elektronikoa, internet bidez, Gernika-Lumoko Udalaren Egoitza Elektronikoan ([www.gernika-lumo.eus](http://www.gernika-lumo.eus)), "Izapideak" atalean. Eredu ofizialean memoria tekniko labur bat sartuko da, dagokion sari-kategoria lortzeko alegatutako merezimenduak azaltzeko eta oinarritzeko. Gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu:
  - Alegatzen diren merezimenduen deskribapena, ZAZPIGARREN oinarrian adierazten diren balorazio-irizpideen arabera.
  - Enpresaren deskribapena eta bilakaera, hura justifikatzeko datuekin.
  - Zure enpresan erabilitako baliabide teknikoak eta giza baliabideak.
  - Interesdunaren iritziz epaimahaiak positibotzat jo dezakeen edozein datu.Sari hauen aurreko edizioetan parte hartu baduzu, aurkeztutako memoriak baliozkoa izaten jarraituko du, informazioa zabaltzeko edo hobetzeko beste bat aurkezteko aukera alde batera utzi gabe.
- Hautagaitzaren oinarri diren merezimenduak egiaztatzen dituzten argazkia/k eta/edo dokumentu grafikoa/k, soilik JPEG formatu digitalean, eta gutxienez hurrengoak: 2 kanpoaldekoak (fatxada osokoak, errotulua eta erakusleihoak barne) eta 3 barrualdekoak.

3.- Ondoren adierazten diren datuak interoperabilidaderen bidez kontsultatuko dira, eta, beraz, interesdunek EZ dituzte aurkeztu beharko. Hala ere, arrazoi teknikoengatik ezinezkoa bada, Udalak datuak edo agiriak eskatu ahal izango dizkio, egiaztatzeko. Era berean jokatuko da interesdunak aurka egiten badu:

- Nortasun agiri nazionala.
- Enpresaren IFK, pertsona juridikoen edo ondasun-erkidegoen kasuan.

4.- Sariak onartu aurretik, Udalak egiaztatuko du irabazleek egunean dituztela Gizarte Segurantzarekiko, Bizkaiko Foru Ogasunarekiko eta udal-ogasunarekiko betebeharrak.

5.- NIK GERNIKAN sarietarako eskabideak aurkezteko epea, 2024eko edizioan, oinarri hauek onartu ondoren hasiko da, eta 2024ko uztailaren 15ean amaituko.

6.- Gernika-Lumoko Udaleko Merkataritza Zinegotzigoa izango da dagozkion espedienteen instrukzio-organoa.



### **LAUGARRENA.- Epaimahaia:**

1.- Epaimahaia honela osatuko da:

- a) Presidentea: Gernika-Lumoko Udaleko Merkataritza zinegotzia edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- b) Batzordekideak: gehienez 4 kide izendatuko dira, Gernika-Lumoko eta Bizkaiko merkataritza-eta ostalaritza-sektorean kaudimen eta ordezkaritza aitortua duten pertsonen artean. Gernika-Lumoko Udaleko Merkataritza zinegotziari dagokio kideak izendatzea.
- c) Idazkaria: Gernika-Lumoko Udaleko enplegatutako publiko batek jardun ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe.

2.- Gernika-Lumoko Udaleko Merkataritza Zinegotzigoak batzorde tekniko bat sortuko du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko, epaimahaiak baloratu aurretik. Edozein unetan eskatu ahal izango da alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazio gehigarria.

3.- Epaimahaiak, aurkeztutako hautagaitzak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztuko dio sariak emateko proposamena, eta hark ebatziko du proposatutako sariak ematea.

### **BOSGARRENA.- zuzkidura ekonomikoa:**

1. Sariak 4.000,00 euroko zuzkidura ekonomikoa izango dute guztira, 1.000,00 euroko 4 saritan banatuta SEIGARREN Oinarrian ezarritako 4 kategorietako bakoitzerako.
2. Sarien zenbatekoa Gernika-Lumoko Udalaren 2024rako Aurrekontu Orokorren gastuen aurrekontuko 9431048111 (Premio Nik Gernikan) aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.
3. Zenbateko hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari edo sozietateen gaineko zergari dagozkion atxikipenen mende egongo da, sariak ematen diren unean indarrean daudenak, dagokionaren arabera.
4. Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da, eta sariak banatzen diren egunean jakinaraziko da.
5. Epaimahaiak eman gabe utz dezake dagokion saria emateko merezimendu nahikorik ez duen edozein kategoria.

### **SEIGARRENA.- Kategoriak:**

Lau modalitate edo kategoria sarituko dira, eta horietako bakoitzak plaka bereizgarri bat eta 1.000,00 euroko saria jasoko du eskudirutan. Modalitate edo kategoria hauek izango dira baztertzailak:

- 1- Merkataritza: Traiektoria komertziala eta Gernika/Urdaibai markak indartu: Kategoria honen xedea da herriko establezimenduen, enpresa-gizon eta -emakumeen eta merkataritzaren saga familiarren traiektoria kontuan hartu eta aitortzea. Batik bat, sektorean erreferente eta Gernika-Lumoko historiaren parte izan direnena, eurak izan baitira merkatuaren gorabehera aldakorretara egokitu izanaren eredu, eta, halaber, haztearen eta hedatzearen gaitasunaren adibide. Balorazioan, iragana ez ezik, dendaren etorkizuneko itxaropenak ere hartuko dira kontuan.

Kategoria honetan, halaber, Gernika-Lumon erreferente diren establezimenduek parte hartuko dute. Ohitura eta tradizio identitarioekiko erreferente direnak, izaera jatorrekoak eta



hiribildu eta Urdaibaiko inguruaren irudia proiektatzen jakin izan dutelako, bertoko produktuak eta gastronomia balioan jarrita.

- 2- **Merkataritza Berritzailea eta Merkataritza Berria:** Kategoria honen xedea da establezimenduek eraberritzeko egin duten ahalegin eta gaitasuna aitortzea, egungo eskaintza eta eskaerara moldatu ahal izateko: on line merkataritza, fidelizazio sistemak sortzea, sustapen berritzaileak, produktuen aurkezpena eta erakusleho-apainketa.  
Kategoria honetan balioan jarriko dira, halaber, azken 24 hilabeteetan sortutako ekimen ekintzaile berritzaileak. Produktuaren kontzeptu berriak, udalerriko merkataritzako eskaintzan hobekuntzak ekarriko dituena.
- 3- **Auzoko Merkataritza:** Kategoria honek auzoko merkataritza saritu nahi du, hots, Gernika-Lumoko merkataritza erdigunetik kanpo egon arren, garrantzia duena hurbileko merkataritza bezala. Auzoak dinamizatzen dituzte denda hauek, tokiko eskaintza sortzen dute, hiribildua egituratzen du eta erreferente da inguruan. Merkataritza-gune nagusi hau III. eranskinean dator definituta.
- 4- **OSTALARITZA:** Kategoria honetan ostalaritza-industriako profesionalak bultzatu eta balioetsi nahi dira, sektoreari egiten dioten ekarpenagatik, udalerrriaren garapen ekonomikoan laguntzeagatik, profesionalen artean zabaltzen dituzten jardunbide egokiengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik.

#### **ZAZPIGARRENA.- Balorazio-irizpideak:**

Kategoria bakoitzeko Epaimahaiaren balorazioa honako irizpide hauen arabera izango da:

- **Traiektoria komertziala:**
  - Funtzionamenduan dagoen urte kopurua.
  - Establezimendu kopurua Gernika-Lumon eta hemendik kanpo.
  - Merkataritza elkarteetan parte-hartzea.
  - Izen komertzial berari eustea.
  - Establezimendu komertzialaren kokapenari eustea.
  - Dendaren etorkizuneko proiektzioa (belaunaldi erreleboa, ...).
- **Gernika-Lumo/Urdaibai markadun denda:**
  - Gernika-Lumoko produktuak eskaintzearen garrantzia.
  - Gernika-Lumoko jarduera tradizionalak atxikimendua.
  - Gernika-Lumoko irudia azaltzea sustapen-ekintzetan.
  - Establezimenduak edota Gernika-Lumo/Urdaibaitik kanpo burutzen duen salmentabolumena.
- **Merkataritza Berritzailea:**
  - Burututako fidelizazio ekintzak.
  - Sustapen originalentzako ekintzak.
  - Merkataritza on-line ezartzea.
  - Erakusleho-apainketa eta errotulazio originalak.
  - Denda sare sozialetan azaltzea.
- **Merkataritza Berria:**
  - Sortutako lanpostuak.



- Gazteen ekintzailletza (35 urte baino gazteagoak).
- Ideia komertzialaren originaltasun maila.
- Tokiko merkatuak ase gabeko estaldura.
  
- Auzoko Merkataritza:
  - Establezimendua auzo horretan bertan dagoen urte kopurua.
  - Langile kopurua.
  - Auzoko jardueretan babesa eta lankidetzak.
  - Tokiko elkarteetako kide izatea.
  - Azken 10 urteotan establezimenduan egindako berrikuntzak.
  
- Ostalaritza:
  - Funtzionamenduan dagoen urte kopurua.
  - Langile kopurua.
  - Izen komertzial berari eustea.
  - Produktu propioen, eksklusiboen eta/edo lokalen eskaintzearen garrantzia.
  - Gernika-Lumoko jarduera tradizionaletan babesa eta lankidetzak.
  - Udalerriko turismo-sustapenean parte hartzea.
  - Azken 10 urteotan instalazioetan egindako berrikuntzak.

#### **ZORTZIGARRENA.- Ebazteko eta jakinarazteko epea:**

Prozedura gehienez ere sei hilabeteko epean ebatziko da, deialdia BAO n argitaratzen denetik aurrera, eta onuradunen zerrenda BDNS n eta Gernika-Lumoko Udalaren webgunean argitaratuko da.

#### **BEDERATZIGARRENA.- Oinarriak onartzea:**

Establezimendu batek "NIK GERNIKAN sarien" deialdi honetan parte hartzen badu, ulertuko da oinarriak onartu eta horietan ezarritako konpromisoak hartzen dituela, eta oinarriak betetzen ez dituen edozein parte-hartzaile kanpoan gera daiteke.

Merkataritza Zinegotzigoak egoki iritzitako moduan erabili ahal izango ditu establezimendu irabazleen irudia eta datuak, Datuak Babesteko Legean ezarritakoaren arabera.

Deialdi honen oinarriak Merkataritza Bulegoan eta [www.gernika-lumo.eus](http://www.gernika-lumo.eus) webgunean egongo dira eskuragarri.

#### **HAMARGARRENA.- Interpretazioa:**

Gernika-Lumoko Udalak beretzat gordetzen du oinarri hauek interpretatzeko eskubidea, zalantzak sortzen dituen edozein egoeraren aurrean, eta bere erabakiak berehala betearaztekoak izango dira.

#### **HAMARGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria:**

Oinarri hauetan aurreikusitakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Diru Laguntzen Ordenantza Orokorra, Udalbatzak 2012/11/28an onartua.



- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendu-araudia.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, DLO garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

Halaber, diru-laguntzen arloan honako hauen inguruan xedatutakoa aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, I. tituluan.
- 39/15 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/15 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

#### **HAMABIGARRENA.- Datuen babesa:**

Datuen babesari buruzko informazioa, NIK GERNIKAN 2024 sarien deialdiari buruzkoa:

Tratamenduaren arduraduna: Gernika-Lumoko Udala.

Helburua: merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko laguntzak.

Legitimazioa: beharrezko tratamendua misio bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatze eskubidea du, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria hemen eskura dezakezu: <http://www.gernika-lumo.eus/es-ES/Institucional/Paginas/informacion-adicional.aspx>.

#### **I. ERANSKINA**

MERKATARITZARAKO sariak direla eta onartutako EJZ epigrafeak :

- 64. multzoa: Txikizkako merkataritza establezimendu egonkorretan: elikagaiak, edariak eta tabakoa: Epigrafe guztiak, 646.5 izan ezik
  - 65. multzoa: Txikizkako merkataritza elikagai eta era guztietako edariak: Epigrafe guztiak, 654.6, 655.1, 655.2, 655.3, 659.9 izan ezik
  - 66. multzoa: 661.1, 661.2, 661.3 epigrafeak
- Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako beste zerbitzu batzuk**
- 691.1 Etxeko tresna elektrikoaren konponketa.
  - 691.9 Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g.
  - 967 Kirol instalakuntzak eta kirol hobekuntzako eskolak eta zerbitzuak.
  - 971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
  - 972 Ile-apaindegiak eta apaindegiak.
  - 973.1 Fotografia-zerbitzuak

- 973.3 Makina-fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.
- 975 Markogintza-zerbitzuak.

## II. ERANSKINA

OSTALARITZARAKO sariak direla eta onartutako EJZ epigrafeak :

- 67. multzoa: Elikadura-zerbitzua: 671, 672 eta 673 taldeak

## III. ERANSKINA

Gernika-Lumoko erdialdeko merkataritza-gunearen mugaketa:

Honako kale hauek hartuko ditu bere baitan:

- Adolfo Urioste: zenbaki guztiak
- Alondegia: zenbaki guztiak
- Allendesalazar: zenbaki guztiak
- Andra Mari: zenbaki guztiak
- Artekalea: zenbaki guztiak
- Askatasuna: zenbaki guztiak
- Azokakalea: zenbaki guztiak
- Barrenkalebarrena: zenbaki guztiak
- Barrenkalea: zenbaki guztiak
- Carlos Gangoiti: 11 zenbakiraino (bakoitiak) eta 18 zenbakiraino (bikoitiak)
- Ciutat de Berga: zenbaki guztiak
- Domingo Alegria plaza: zenbaki guztiak
- Domingo Bernaola: zenbaki guztiak
- Don Tello: zenbaki guztiak
- Elai Alai plaza: zenbaki guztiak
- Elbira Iturri: zenbaki guztiak
- Enrique Amurrio: zenbaki guztiak
- Eriabarrena: zenbaki guztiak
- Eriako lorategia: zenbaki guztiak
- Euskal Herria: zenbaki guztiak
- Fernando Abaunza: zenbaki guztiak
- Foru plaza: zenbaki guztiak
- Industria: zenbaki guztiak
- Iñigo López de Haro: zenbaki guztiak
- Iparragirre: 34 zenbakiraino
- Jose Antonio Agirre plaza: zenbaki guztiak
- Juan Calzada: 55 zenbakiraino (bakoitiak) 28 zenbakiraino (bikoitiak)
- Karmelo Etxegarai: zenbaki guztiak
- Loizaga: zenbaki guztiak
- Marijesiak plaza: zenbaki guztiak
- Miguel de Unamuno: zenbaki guztiak
- Nere Kabia: zenbaki guztiak
- Ocho de enero: zenbaki guztiak
- Pablo Picasso: zenbaki guztiak
- Pasealekua: zenbaki guztiak
- Portu: zenbaki guztiak
- San Juan: 14 zenbakiraino (bikoitiak) 29 zenbakiraino (bakoitiak)



- San Juan Ibarra plaza: zenbaki guztiak
- San Roke: zenbaki guztiak
- Saraspe plaza: zenbaki guztiak
- Txorraburu kalea: zenbaki guztiak
- Ubitarte: zenbaki guztiak
- Urkieta: zenbaki guztiak

